



# LABORAL KUTXA TXARTELEN KANPAINA: 300€-KO SUSTAPENA

## 1.- Erakunde antolatzailea eta zozketaren data

Caja Laboral Popular S. COOP. kooperatiba-sozietateak —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—, helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) —Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua, zk.g., 20500— duenak, zozketa bidezko sustapena egingo du; hain zuzen, 300 euroko eskudiruzko 50 sari zozkatuko ditu: **2017ko irailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31ra** bitartean egindako erosketen zenbatekoa itzuliko da, 300 euroko mugarekin.

## 2.- Doakotasuna

Zozketa hau doakoa da. Hortaz, saria irabazteko ez da kuotarik edo kopuru osagarririk ordaindu behar.

## 3.- Zozketan parte hartzeko legitimazioa

Pertsona fisikoak diren 18 urtetik gorako bezeroek hartuko dute parte zozketan, betiere **2017ko irailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31ra** bitartean LABORAL Kutxaren kreditu- edo zordunketa-txartel partikularrekin gutxienez 300 euroko ordainketak egiten badituzte.

Zozketatik kanpo geratuko dira LABORAL Kutxako langileak eta zozketarekin zerikusi zuzena duten pertsonak.

Irabazleek egunean eta positiboan izan behar dituzte entitatearekin kontraturiko produktuak eta/ edo zerbitzuak eta harreman ekonomikoa. Bestela, saria balio gabetzeko eskubidea erabili ahal izango du entitateak.

## 4.- Zozketa

Zozketa **2018ko otsailaren 15ean** egingo da, ausazko sistema informatiko baten bidez, adierazitako epealdian jakinarazpenean adierazitako egunen artean zozketaren baldintzak betetzen dituzten pertsona guztien artean.

Gainera, ordezkoko 10 izen aterako dira, badaezpada, irabazleak baldintzak betetzen ez baditu ere.

Entitatearen datu-basean gordetako bezeroen datuak erabiliz hiru egun balioduneko epean saridunen batekin harremanetan jartzerik ez badago, saria lehen ordezkorentzat izango da eta, ondoren, hurrengoentzat, zozketan ateratako hurrenkerari jarraiki.

## 5.- Sariaren azalpena eta entregatzeko modua

300 eurorainoko eskudiruzko 50 sari: **2017ko irailaren 1etik 2018ko urtarrilaren 31ra** bitartean egindako erosketen zenbatekoa itzuliko da, 300 euroko mugarekin. Entitateari egoki iruditzen zaizkion moduan eta lekuan emango du saria.

## 6.- Sariaren fiskalitatea

Sariari indarrean dagoen legedian ezarritako zerga dagokio. Sariak zerga-karga ekonomikorik badu, LABORAL Kutxak ez du bere gain hartuko. Zergaren alorreko gastu guztiak irabazlearen kontura izango dira.

## 7.- Irudi-eskubidea lagatzea

Zozketako irabazleak, saria jasotzeko eskubidea izango badu, LABORAL Kutxari baimena eman behar dio bere izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, Entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoetan. Baimena eman ezean, galdu egingo du saria jasotzeko eskubidea, eta zozketaren arabera dagokion ordezkoari emango zaio.

## 8.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak eskubidea izango du, zozketa honen inguruan sortzen den edozein auzi edo eztabaida egoki deritzon legez bideratzeko, baita sustapena geroratu, aldatu edo bertan behera uzteko ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek oso-osorik onartzea. Oinarriok hemen kontsulta daitezke: [www.laboralkutxa.eus](http://www.laboralkutxa.eus).

